



Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa: Garapena Herriko Etxeetan



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



EUSKAL KONFEDERAZIOA



© Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua
www.kontseilua.eus
2019ko urria

I. SAR-HITZA	5
II. PRINTZPIO OROKORRAK, ANTOLAKETA ETA ERABILGARRITASUNA	7
1. Udal Garapena gidatzen duten printzipio orokorrak	8
2. Protokoloaren Garapena Herriko Etxeetan: Hizkuntza-politika integrala zein eremuz eremukoa prozesu baten baitan lantzeko gida	8
3. Edukien antolaketa	9
4. Dokumentua erabiltzeko zenbait argibide	10
4.1. Dokumentuaren erabilgarritasuna	10
4.2. Parte-hartzea	10
4.3. Abiapuntuko diagnostia, helburuen zehaztapena eta tresnak	10
4.4. Lehentasunezko neurriak eta irizpideak	10
III. HELBURUAK, MUGARRIAK ETA NEURRIAK	13
1. Herriko etxea	14
1.1. Zerbitzuak eta prozedurak euskaraz	14
1.2. Komunikazio-jarduera euskaraz	15
1.3. Euskaraz lan egitea	17
2. Beste jokabide esparruak	19
2.1. Hezkuntza	19
2.2. Eremu sozioekonomikoa	23
2.3. Hedabideak eta ingurune digitalak	24
2.4. Onomastika	25
2.5. Kultura	26
IV. GLOSARIOA	27



|

SAR-HITZA

2016ko abenduaren 16an, urte eta erdiko prozesuaren ondotik, Europako hogeita hamar hizkuntza komunitatetako ehun eragile baino gehiagok eginiko proposamenekin Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu genuen Donostiako Kursoal jauregian. Europan hizkuntza gutxituen alde lan egiten duten gizarte eragileek inoiz egin izan duten ariketarik erraldioenaren ondorioa izan zen Protokoloa. Adostasunetik gure eskubideak bermatzeko neurri-zerrenda prestatu genuen. Horrela, hizkuntza-eskubideak bermatzeko kontuan hartu beharreko 185 neurri biltzen dituen dokumentua osatu genuen: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (HEBP).

Eskubideen definizioari dagokionez, Protokoloak 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala izan zuen abiapuntu. Esan dezakegu, beraz, Protokoloak jasotzen dituen 185 neurriak betetzeak ondorio bat eraginen lukeela, hain zuzen ere, hizkuntza-komunitateari Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak aitortutako eskubideak bermatzea.

Protokoloa eskutan, beste urrats bat egitea beharrezkoa zela ikusi zen. Protokoloaren balioa hizkuntza-komunitate desberdinetako proposamenak biltzeko parada izan bazen ere; horrek, halaber, hizkuntza zehatz baterako aplikazioa lantzea eskatzen zuen. Horregatik, nahitaezkoa ikusi zen Protokoloa euskararen ikuspegitik irakurtzen lagunduko zuen tresna sortzea. Oron buru, Protokoloaren Euskal Herriko Garapena neurri bakoitzaren inguruko zehaztapenak jaso zituen. Euskararen beharretatik neurri bakoitza bete ahal izateko ezaugarri eta irizpide sorta zehaztu zen.

Herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea da herriko etxea. Herritarrek hurbilen sentitzen dutena dela esango genuke, izan ere, egunerokotasunean Herriko Etxearekin harreman franko izaten dute herritarrek, bai eta herriko zerbitzu eta eskaintza andana jaso ere. Arrazoi horregatik Kontseiluarentzat eta Euskal Konfederazioarentzat estrategikoak izan dira herriko etxeetako hizkuntza-politikak eta hainbat proiektu garatu izan dute bertan eragiteko.

Orain, Kontseiluak, Euskal Konfederazioarekin batera, proposamen berri bat jarri nahi du mahai gainean: Protokoloaren Garapena Herriko Etxeetan. Hain zuzen ere, herriko etxeek Protokoloak hizkuntza-eskubideak bermatzeko jaso zituen neurriak herriko etxeek aurrera eramateko moduko bide-orria. Bertan, hizkuntza-politikak jaso

beharreko helburuak, mugarriak eta neurriak zehazten dira. Euskaraz bizi nahi duten herritarrei aukera hori ahalbidetzeko garatu beharko litzatekeen bide-orria edo tresna da eskuartean duzun dokumentua.

Herriko etxeetatik garatu beharreko hizkuntza-politikek eremu publikoan euskara ahal bezainbat garatzea eta erabiltzea ekar dezake, herritarri euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa azkartuz. Horretaz gain, ez dezagun ahantz, herriko etxeak bezalako administrazioek herritar euskaldunek dituzten hizkuntza-eskubideak errespetatzen laguntzen dutela. Hortaz, hemen aurkezten dugun dokumentuak erraztasunak eman nahi dizkie herriko etxeetan gobernatzen duten hautetsiei hizkuntza-politika ausartak martxan jarri ditzaten eta haiek ere eredugarri bilaka daitezen arlo horretan. Aipatu behar dugu gainera, Euskal Hirigune Elkargoak hizkuntza politikak garatzeko eskaintzen duen koadroa lagungarri dela Herriko etxeentzat. Herriko etxeek badituzte beraz aldeko haizeak aitzina pauso anbiziotsuak emateko euskararen garapenean.

Egia da, bai, euskara ez dela ofiziala eta horren oztopo izaten segitzen duela. Egia ere bada euskararen garapena ziurtatzeko behar beharrezkoa den lege-babes koadroan aldarrikapen horrekin aitzina segitzeko asmoa adierazi duela behin eta berriz euskalgintzak. Halere, orain arte urrats interesgarriak egin dituzte zenbait herriko etxek eta etorkizunean urrats are ausartagoak egiten lagunduko die honako dokumentu honek.

Gainera, dokumentu hau lanerako eredu berri baterako tresna izatea era nahi dugu Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak. Gero eta gehiago entzuten da erakundeen eta gizarte eragileen aldetik politikeetatik gobernantzarako jauzia egin behar dela, eta politiken definizioetan gizarte eragileen ahotsak pisu handiagoa izan behar duela. Zinez, uste dugu, Protokoloaren Garapena Herriko Etxeetan tresna lagungarria izango dela politikak beste modu batez egiteko, eta euskalgintzan ere prest gaude lankidetzarako bide berriei ekiteko.



||

PRINTZIPIO OROKORRAK, ANTOLAKETA ETA ERABILGARRITASUNA

1. Dokumentua gidatzen duten printzipio orokorrak

Herriko etxeak zerbitzu publikoa eskaintzeko bete-beharra duen heinean, ezinbestean, hizkuntza-eskubideak kontutan hartu behar lituzke, besteak beste, berdintasun-printzipioa delako zerbitzu publikoaren oinarritzko printzipioetako bat.

Horregatik hemen aurkezten dugun hizkuntza-politikarako oinarria ondoko printzipioen arabera osatua da.

- Hizkuntza-eskubideen aitortza
- Hizkuntzarengatiko diskriminazio eza
- Euskarari estatus ofiziala
- Araudi egokia
- Neurri zuzentzaileak hizkuntza-eskubideak bermatzeko
- Baliabide materialak, diru-baliabideak eta giza baliabideak
- Neurri positiboak, besteak beste, euskarari lehentasunezko tratamendua
- Ezagutzaren unibertsalizazioarako neurriak
- Hizkuntza-politikaren zehar-lerrotasuna
- Arnasguneen aitortza eta babesa

Hizkuntza-eskubideak gidatzen dituzten printzipioak dira hauek Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloan zehaztu zirenak eta Deklarazio Unibertsaletik eratorriak. Egia da Ipar Euskal Herrian dagoen estatus ezak baldintza ditzakeela printzipio horiek, baina ezinbestekoa irudiltzen zaigu, edozein hizkuntza-gutxituri dagokionez, hizkuntza-eskubideak bermatzeko printzipioak jasotzea. Beste kontu bat da eta, halaxe egin dugu, gure proposamen egungo errealitatera egokitzea.

2. Protokoloaren Garapena Herriko Etxeetan: Hizkuntza-politika integrala zein eremuz eremuko prozesu baten baitan lantzeko gida

Hizkuntza hegemonikoenek ez bezala, hizkuntza gutxitua den euskararen berreskurapen- eta garapen-prozesuak kudeaketa berezitua eskatzen du, hau da, berariazko hizkuntza-politika garatzea. Aldi berean, interes orokorreko politika gisa ulertu behar genuke hizkuntza-politika, epe laburreko eztabaida politikoetatik haratago doana.

Horiek erranik, herri administrazioak hiru eginkizun nagusi ditu anbizio handiko hizkuntza-politika abian jarri nahi badu.

- Zerbitzuak euskaraz segurtatzeko eta informazioa euskaraz eskaintzeko bi-

deak ezarri.

- Ardurapeko egituretan euskaraz lan egin ahal izateko baldintzak ahalbidetu.
- Euskararen garapena eta erabilpena sustatzeko neurriak hartu bere eragin eremuan. Izan ere, herriko etxea herritarren ongizatea ahalbidetzen duen egitura administratiboa den heinean, euskal hiztunak euskaraz bizi daitezen eremuak sustatzea herriko etxearen misio ere bihurtzen da.

Helburu horiek betetzeko hizkuntza-politika integrala diseinatu eta aplikatu beharko du eta horrek herriko etxearen funtzionamenduari eraginen dio, kanpora begira eredugarria izatea bultzatuko du eta erabilera-espazioak sortzea ekarriko du.

Haatik, hizkuntza-politika integrala plantan ezartzea prozesu baten baitako eginkizuna denez, urratsez urrats landu beharko da. Horregatik, dokumentu honetan prozesu hori abian jartzeko molde ezberdinak proposatzen dira.

3. Edukien antolaketa

Dokumentua bi atal nagusitan banatzen da. Batetik, *Herriko Etxea* eremu gisa izendatu duguna zeinetan barne biltzen diren herritarrekiko zerbitzua, komunikazio jarduera eta barne funtzionamendua, eta, bestetik, *Beste Jokabide Esparruak* izendatu duguna, zeinetan kokatu ditugun, hezkuntza, eremu sozioekonomikoa, hedabideak eta ingurune digitala, onomastika eta kultura.

Halaber, bi atalak hiru helburuen arabera sailkatu dugu:


- Herritarrek zerbitzua euskaraz jasotzea.
- Komunikazio-jarduera euskaraz egitea.
- Euskaraz lan egitea.

Ondoren, hiru helburuak erdiesteko mugarrak definitu ditugu, eta azkenik, horiek gauzatzeko neurriak zehazten dira. Eremu hori herriko etxearen eskumenpekoak izanik, hizkuntza-politika garatzeko tresna guztiak izango ditu (arauak, plangintza, sustapena edo laguntzak).

Bigarren atala berriz, herri administrazioak besteko jokabide esparruetan banatua da. Zenbaitetan, herriko etxeak ardurapean izanen ditu esparru horietako atal batzuk, haur

hezkuntza adibidez. Beste batzuetan, aldiz, eskumenik ez ukanik ere, eragiten ahalko du. Gainera, gisa horretan hizkuntza-politikak esparruka lantzeko aukera ere izanen dugu.

Hona dokumentuaren deskribapen grafikoa.



4. Udal Garapena Protokoloaren Garapena Herriko Etxeetan dokumentua erabiltzeko zenbait argibide

4.1. Erabilgarritasuna

Arestian erran bezala, dokumentu honetan azaltzen diren neurriak ikuspegi orokorrarekin landu daitezke, baina bai eta esparruka ere. Hizkuntza-politika definitzen dugunean ezinbestean tokian tokiko errealitateari egokitu behar gatzazkio. Horregatik, Protokoloaren Garapena Herriko Etxeetan errealitate desberdinei erantzuteko tresna izatea nahi dugu. Herriko etxe bakoitzak bere egoeraren arabera definitzen ahalko du zein neurri edo esparru landu. Esan bezala, Protokoloaren Garapena Herriko Etxeetan dokumentuak aukera ematen digu lanketa integrala egiteko edo eremu zehatz bateko politikak definitzeko.

Jakitun gira ezen, hizkuntza-politika eraginkorra

abian ezartzea ez dela egun batetik bestera egiten den zerbait. Aitzitik, prozesu bat da. Are gehiago, egoeraren arabera landu beharreko prozesua da. Horregatik herriko etxe bakoitzaren esku geldituko da jokabide-esparruak definitzea eta lehentasunak zein esparrutan ezartzea.

4.2. Parte-hartzea

Hizkuntzaren kudeaketa eta erabilera pertsona guztiei eragiten dien gaia da. Horregatik, edozein delarik ere kasua, hizkuntza-politikaren eraginkortasuna bermatzeko, garrantzitsua da interesdunen parte hartze zuzena egotea.

Herri ordezkariekin batera lanketa horretan hasiera beretik herriko euskalgintzako ordezkarien parte hartzea gomendatzen da, bai diagnostikoan, bai hizkuntza-politikaren definizioan zein implementazio-fasean. Gisa horretan, herriko etxetik egin daitezkeen lanketak eta euskalgintzatik egin daitezkeenak

ahalik eta sinkronia eta koordinazio estuena izan dezaten segurtatu beharko da. Eta, nola ez, horrekin batera, hizkuntza-politikak eragina izatea bilatzen duten beste esparruetako eragileetako (merkatari elkarte, kirol elkarte...) ordezkariekin ere harreman zuzena lantzea gomendatzen da.

4.3 Abiapuntuko diagnosis, helburuen zehaztapena eta tresnak

Dokumentua lantzen hasi aitzin herriko etxe bakoitzak zeinek bere diagnosis egin behar luke, dokumentuak aipatzen dituen helburuen arabera. Herriko etxea zein egoeratan den eta zein oinarritatik abiatzen den zehaztea izango da, hortaz, lehen ariketa.

Egoeraren azterketa edo diagnosis osatu ondotik, eta gabeziak zein beharrak zein diren definiturik, herriko etxe bakoitzak dokumentuan agertzen diren neurrien arabera, bere buruari ezartzen dizkion helburuak zehazten ahalko ditu. Horrekin batera, zehaztutako helburuei epe zehatzak ezartzen ahalko dizkio.

Bi ariketa horiek eginak direlarik, hiru tresna ukanen ditu herriko etxeak eskura politika hori aitzina eramateko: Arauak, plangintzak eta baliabideak.

Arauak

Hiztunek hizkuntza-eskubideak gauzatzeko berme guztiak izan ditzaten, ezinbestekoa da araututako koadro bat ezartzea. Herriko etxearen kasuan, deliberoen bidez arautu daiteke hizkuntza-politika. Eskubideak eta betebeharrak kontuan hartuz, erabakiak arau bilakatu, eta horiek gauzatzeko estrategia jasoko lituzke deliberoak.

Frantziako legeak ezartzen dituen mugak kontuan izanik ere, deliberoetan hizkuntza-politika arautzeko aukerak egon daitezke Euskal Hirigune Elkargoak berak egin duen bide beretik. Horiek arakatu eta gauzatzeko moduak aztertu beharko lirateke beraz.

Plangintzak

Herriko etxe batek hizkuntza-politika modu sistematizatuan plantan ezartzeko, ezinbestean, plangintza bat osatu behar du. Egoera batetik beste egoera batera pasatzeko tres-

na litzateke, horrenbestez, hizkuntza-politika planifikatua. Hizkuntza-politika planifikatua- ren ezaugarrietako bat epeen zehaztapena da, bai eta jarritako helburuen betetze-mai- laren ebaluazioa egitea ere.

Hona hemen, plangintzan ezinbestean jaso beharreko elementuak:

- Departamentu / sail bakoitzaren egoeraren azterketa eta diagnosis.
- Helburu zehatzen definizioa adierazleekin eta epeekin.
- Hizkuntza-politikaren ebaluazioak (tartekoa eta amaierakoa) egiteko epeen eta tresnen zehaztapena
- Tarteko ebaluazioa, bete ez diren helburuei neurri zuzentzaileak esleitu dakion.

Baliabideak

Plangintza aitzina eramateko baliabideak ezinbestean esleitu behar ditugu. Baliabide horiek iraunkorrak izan behar dira, hain zuzen ere, inbertsio bat egiten denaren ikuspegiarekin landu beharrekoa baita. Baliabide espezifikoak ere ezartzea eskatzen du euskararen garapen-estrategiak, egoera bereziari erantzuten lagundu behar lioketenak. Baliabide horiek, orokorrak zein espezifikoak, ekonomikoak, materialak edo humanoak izan daitezke.

Dirulaguntzez, inbertsioez, esleipenez eta kontratazioez ari gara beraz, baita ere, itzul-penerako tresnez, azpiegitura egokituz, material egokiaz... eta nola ez, euskara teknikariez, adituez eta gizarte eragileen ekarpenaz... Egoerari erantzungo dioten baliabide askotarikoak, eta epe ertain-luzera ere eragina izango dutenak.

4.4. Lehentasunezko neurriak eta irizpideak

Diagnosis egin ondotik eta helburuak zehaztu eta gero, zaila izan daiteke hemen jasotzen diren neurri guztiak abian jartzea. Baliabide mugatuak izan ohi ditugunez, eta zenbait arrazoi dela-medio, ezin diogu guztiari aldi berean erantzun. Horregatik, indarrak lehentasunez non jarri asmatzen jakitea gako garrantzitsua da.

Ondoko lerroetan, horretarako argibide edo irizpide batzuk emanen dira. Ulertzen dugu,

halaber, herriko etxeek egoera ezberdinak eta espezifikoak dituztela, eta, beraz, bakoitzak zeinek bere egoerara egokitzen jakin beharko du.

Egingarritasun- eta eraginkortasun-irizpidea:

Lehentasunak finkatzeko garaian, egingarritasunaren eta eraginkortasunaren ardatzak etengabe begi-bistan izan behar dira. Hartzen diren erabaki guztietan aintzat hartu beharko litzateke, alde batetik, erabaki horiek euskararen garapenean duten eragina, eta bestetik, erabaki horiek aurrera ateratzeko aukerak (baliabideak, gaitasunak, ahalmenak...) zein diren.

Hizkuntza-paisaia finkoa:

Irizpide bertsuei jarraikiz, irudi korporatiboa eta idatzizko komunikazio-euskarriak euskalduntzeko garaian, euskarri finko edo egonkorrenetatik hastea eta aldakorrenak diren horietara igarotzea da logikoena.

Jendaurre zabalari eta haur zein gazteei begirako jarduerak

Irizpide hori aintzat harturik, publiko gehien edo eragin handien dituzten jarduerari lehentasuna eman beharko zaie. Bestalde publiko zabalari begirakoak ez badira ere, etorkizunari begira, haurrei zein gazteei zuzenduak diren jokabide-esparruei lehentasuna ematea estrategikoa da.

Herritarrarenganako zerbitzua:

Lanpostuetan postu-fitxak zehazten direlarik, herritarrekin harreman gehien eta zuzenen duten herri-zerbitzuetako lanpostuek, bai eta haurren heziketa- edo hezkuntza-prozesuetan zein nagusien zaintzan parte hartzen duten lanpostuek ere, lehentasuna izatea gomendatzen da.

Administrazio-prozedurak:

Zerbitzu-eginkizuna duten eremuetan (jendurrekoak zein gizarte mailakoak) zerbitzua euskaraz jaso ahal izateko garrantzitsua da sailean eta sailen artean prozedura osoa euskaraz eskaini ahal izateko 'zirkuituak' osatzea; edo gutxienez epe luzeko ikuspegi horrekin jokatzeko. Horretarako, sail

horietan guztietan gutxieneko euskaragaitasunak dituzten langileak egotea bilatuko da.

Komunikazio-jarduera:

Herriko etxearen kanpo komunikazio idatzian indarrak emateak ikusgarritasunari lagunduko dio. Kanpo irudia euskalduntzen den heinean, herritarra euskalduntze-prozesu horretako partaide izatera ere gonbidatzen da. Herriko etxearen ahozko komunikazioan ere indarrak ezartzea mesedegarria izan daiteke hizkuntza-politikaren azkartzeko.

Langileek euskaraz lan egiteko neurriak:

Arlo honetako lehen urratsa langileek euskaraz lan egiteko tresnei lehentasuna ematea da. Halaber, langile gehienekin harremana duten zerbitzuetako lanpostuetako langileei euskalduntze formakuntzak lehentasunez eskaintzea izango da beste lehentasunetako bat.

Horrekin batera, euskaraz lan egin nahi duten langileei, beharrezko gaitasunak eskuratzeko, formazio jarraikiaren baitan, euskalduntzeko edo euskarazko trebakuntzarako saiok eskaintzea lehentasunezko neurria izango da. Neurri horri esker, epe ertainera euskarazko langile gaituak sortzen dira eta horrek eragina biderkatzen du. Halere, ezinbestekoa da langileak hizkuntza ikasteko baldintza egokiak ukaitea, bai eta langilearen lan-misio gisa kontsideratua izatea ere.

Euskarazko erabilera-espazioak bultzatzea

Euskararen ezagutza eta erabilera mugatua den herrietan, herriko etxearen interbentzioa lagungarria da. Bai herriko etxearen barne funtzionamenduan, bai eta herrian euskarazko erabilera eremuak ahalbidetzeari begira ere, herriko etxeak jarrera proaktiboa izan behar du eta euskarazko gune horiek agerian ezarri edo sortzeko baldintzak bultzatu behar ditu.



III

HELBURUAK, MUGARRIAK ETA NEURRIAK

1. HERRIKO ETXEA

1.1. ZERBITZUAK ETA PROZEDURAK EUSKARAZ

HEBP: 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, eta 43. neurriak

1. Herriko etxeak zerbitzuak euskaraz ziurtatuko ditu:

- Herri Elkargoaren irizpidea segituz, herriko etxeak ofizialki aitortuko du euskara lurraldeko hizkuntza gisa.
- Zerbitzuak eta administrazio-prozedurak euskaraz ematera engaiatuko da.
- Herriko etxeak ez du euskara beste edozein hizkuntza baino gutxiago balioztatuko, ez zerbitzuak ematean, ez komunikazio-jardunean, ez eta langileekiko harremanetan ere.
- Aurreko neurriak aplikagarriak izanen dira herriko etxearen menpeko bestelako erakundeetan ere.

2. Herriko etxeak herritarrekiko ahozko eta idatzizko arreta euskaraz emanen ditu:

Herritarrekiko arreta zuzena

- Idatzizko euskarriak euskaraz emanen dira: inprimakiak, deialdiak, jakinarazpenak, deliberoak...
- Herriko etxearen informatika aplikazioak eta on-line zerbitzuak euskaraz eskainiko dira.
- Ahoz ere, euskarazko zerbitzua segurtatuko da: Arreta-guneak, erantzungailuak, bozgorailuak...
- Herri langileak ezin badu zerbitzua euskaraz ematen, egoerari aterabidea emateko bideak zehaztuko dira, herritarrak ahalik eta denbora-tarte laburrenean zerbitzua euskaraz jaso dezan.

Prozedurak udalarekin

- Izapideak bideratzeko dokumentuak euskaraz emanen dira.
- Herriko etxeak euskaraz egin nahi duen herritarrari hautua bermatzeko bitartekoak jarriko dizkio, itzulpenak, etab.
- Zirkuituak osatuko dira departamentu eta sail guztietan herritarrak herriko etxearekin abiatu duen prozedura euskaraz egin dadin.

3. Herriko etxeak zerbitzuak euskaraz emateko langile euskaldunak izanen ditu:

- Herritarrei begirako zerbitzu guztietako lanpostuen postu-fitxetan euskararen ezagutza balioztatuko da.
- Hautagaiek kompetentzia eta esperientzia bera dutelarik euskararen ezagutza balioztatuko da.
- Herritarrekin harreman gehien duten zerbitzuetako lanpostuek, bai eta haurren heziketa- edo hezkuntza-prozesutan parte hartzen duten lanpostuek ere, lehentasuna dute langileen euskalduntze-planetan.
- Herritarrekin harreman gehien duten zerbitzuetako lanpostuek, bai eta haurren heziketa- edo hezkuntza-prozesutan parte hartzen duten lanpostuek ere, lehentasuna dute lanpostuen profilak zehazteko garaian.
- Herriko etxeko atal guztietan langile euskaldunak egotea hobetsiko da euskarazko zirkuituak ahalbidetzeko.
- Langileen barne-mugikortasuna erraztuko da zirkuituak osatu ahal izateko

4. Herriko etxeak kanpo kontratazioetan, esleipenetan eta diru-laguntzetan, hizkuntza-irizpideak ezarriko ditu.

- Herriko etxeak bere zerbitzuak kanpo enpresei edo elkarteei esleitzen dizkienean, enpresa horiek herriko etxearen hizkuntza-irizpide berak bete ditzaten bilatuko da.
- Zerbitzua euskaraz eskaintzen dutela egiaztatzen duen ziurtagiria duten kanpo-enpresak eta elkarteak balioztatuko dira kontratazioetan.
- Dirulaguntza jaso duten proiektuek edo entitateek herriko etxearen irizpideak segituz, zerbitzua euskaraz emanen dute bai ahoz bai eta idatziz ere.

5. Departamentu / sail bakoitzean hizkuntza-plangintza onartuko du:

- Herriko etxeak hizkuntza-plangintza osatuko du.
- Plangintzak HiriguneElkargoaren eta herriko etxearen arteko hobekuntza-kontratu bidez osatzen ahalko dira.
- Departamentu / sail bakoitzaren egoera aztertuko da eta diagnosis egingen da.
- Helburu zehatzak definituko dira, adierazleekin eta epeekin.
- Plangintzaren ebaluazioak (tartekoa eta amaierakoa) egiteko epeak eta tresnak zehaztuko dira.
- Tarteko ebaluazioan bete ez diren helburuei neurri zuzentzaileak jarriko zaizkie.
- Ebaluazioak egiteko jarraipen-batzordea osatuko da eta euskalgintzaren presentzia bermatuko da.
- Baliabideak plangintzaren araberakoak izanen dira.
- Herriko etxearentzat lan egiten duten enpresek plangintzako irizpideak beteko dituzte.

1.2. KOMUNIKAZIO-JARDUERA EUSKARAZ

HEBP: 40, 41, 42, 43 eta 44. neurriak

1. Udalak irudi korporatiboa euskaraz emanen du:

- Irudi korporatiboa erabiltzen duten euskarri guztiak euskaraz jarriko dira.
- Udaleko irudi korporatiboaren elementuak — bereziki, organoen eta erakundeen izenak — euskaraz idatziko dira.
- Herriko etxearen bulegoetako barneko eta kanpoko seinaleetika euskaraz idatziko da.

2. Herriko etxeak idatzizko komunikazio-euskarriak euskaraz emanen ditu:

- Afitzak eta komunikazio-euskarri guztiak euskaraz editatuko dira (behin betiko zein behin-behineko elementuak barne).
- Herriko etxearen esku diren argitalpen guztiak euskaraz publikatuko dira, orokorrak zein berezituak.
- Euskara sortze-hizkuntza izatea balioztatuko da.
- Hedabideei zuzendutako mezu eta ohar guztiak euskaraz zabalduko dira.
- Herriko etxeak idatzizko, irratiko edo telebistako hedabideen bitartez sustatzen duen publizitate instituzionala euskaraz hedatuko da.
- Herriarrei zuzendutako euskarri digitalak, webguneak, aplikazioak eta sare sozia-
lak euskaraz publikatuko dira.
- Herriko etxearen web-orrietako URL helbideak euskaraz idatziko dira.

3. Herriko etxeak jarduera ofiziala zein publikoa euskaraz egingen du:

- Herriko etxearen ohiko jarduerari dagozkion guneetan euskaraz egitea ahalbidetu-
tuko da itzulpen zerbitzuaren bidez: Herri kontseiluak, batzordeak...
- Herriko etxeak antolatzen dituen ekitaldi ofizialak edo publikoak euskaraz izanen
dira.
- Herriko etxearen ekimenez antolatzen diren jardunaldi eta bilkuretako ahozko eta
idatzizko komunikazioa euskaraz egingen da.
- Beste erakunde edo entitateen ekitaldietan herriko etxeak parte hartzen duenean,
hitzartzeak euskaraz egingen dira.

4. Herriko etxearen ardurapean, zuzenean edo zeharka diren erakunde guzietan, komunikazio-irizpideak ezarriko dira:

- Herriko etxearen menpeko bestelako erakundeetan, eta herriko etxeak parte hartzen duenetan (herri-sindikata, enpresa publiko...), irizpide berak aplikatuko dira.
- Herriko etxearentzat lan egiten duten enpresek zein herri zerbitzuak eskaintzen dituztenek komunikazio-irizpide berdinak dituzte.
- Dirulaguntza jaso duten proiektuek hizkuntza-irizpideak izanen dituzte komunikazioan, eta herriko etxearen irizpideekin bat egingen dute.

5. Herriko Etxeak 1.1.5. atalean zehazten denaren arabera osatuko du plangintza eta irizpide horiez gain, hauek ere zehaztuko ditu:

- Komunikazio-jardunean euskararen tokia zehaztuko da hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Lehentasuna emanen zaie umeei zein gazteei zuzendutako jardueri.
- Komunikazio-euskarriei dagokienez, euskara sortze-hizkuntza izatea lehenetsiko da.
- Teknika egokiak aplikatuko dira diskurtsoak bi hizkuntzetan errepikatu behar ez izateko (azpigituluak, aldibereko itzulpena, tresna informatikoek eskain ditzaketen erraztasunak...).

1.3. EUSKARAZ LAN EGITEA

HEBP: 42, 45, 46, 47, 48 eta 49. neurriak

1. Herriko etxeak euskara lan-hizkuntza gisa erabiliko du:

- Herriko etxeak euskaraz lan egitea ez duela debekatzen adieraziko du.
- Herriko etxeak, bere kabuz, hasten dituen administrazio-prozeduretan euskara erabiliko du.
- Herriko etxeko sail guztietan langile euskaldunak egotea hobetsiko da euskarazko zirkuituak ahalbidetzeko.
- Langileen barne-mugikortasuna erraztuko da 'zirkuituak' osatzeko.

2. Lan-jarduna eta langileen arteko komunikazio ofizialak euskaraz egingen dira:

- Herriko etxeko sail eta eremuetan euskara-unitateak sortuko dira langileen arteko euskarazko komunikazioa errazteko.
- Langileen barne-mugikortasuna ahalbidetuko da euskara-unitateak sortzeko.
- Langileei igortzen zaizkien barne-oharrak, zirkularrak, kontratuak eta bestelako dokumentuak herriko etxeak sortzen dituelarik, euskaraz editatuko dira.
- Euskaraz lan egiteko behar diren baliabide teknikoak eskuragarri izanen dira: lexicografia berezitua, software informatikoa...

- Talde-lanean euskarazko komunikazioa errazteko baliabideak jarriko dira (aldibereko itzulpena...).
- Erabilera bultzatzeko sentiberatze-saioak antolatuko dira.
- Euskaraz gaituta ez dauden arduradun politikoek euskalduntze-ikastaroak jasotzeko aukera izango dute herriko etxe bakoitzak ezarriko dituen baliabideen bitartez eta B2 maila eskuratzeko gutxienez.
- Barne-komunikazioetan euskaraz aritzea errazteko, langileak identifikatzeko erabiltzen diren informazio euskarrietan (telefonoen zerrenda, langileen direktorioa, eta abar), langilea zein hizkuntzatan gaitua den adieraziko da.

3. Langileek euskaraz lan egiteko maila egokia izanen dute eta langile euskaldunak kontratatuko dira:

- Langileen kontratazioak egitean hizkuntza-irizpideak hartuko dira kontuan, eta hautagaiek kompetentzia eta esperientzia bera dutelarik euskararen ezagutza balioztatuko da.
- Euskararen ezagutza gaitasun gisa hartuko da hautagaien hautaketan.
- Herritarrei begirako lanpostuetan langile euskaldunak ezarriko dira.
- Langile guztiei lan-denboran euskalduntzeko aukera eskainiko zaie gutxienez C1 maila arte.
- Formakuntza-planak helduen euskalduntze erakundeekin batera diseinatuko dira, eta lanpostuaren eta langilearen beharretatik abiatuko da.
- Zerbitzuburuak bere zerbitzua euskalduntzeko engaiamendua hartuko du eta euskarazko formakuntza hartzen duen langileari baldintza egokiak ezarriko dizkio euskara ikas dezan.
- Euskarazko formakuntza beste edozein formakuntza bezala kontsideratuko da.
- Formazio orokorraz gain, lanpostu bakoitzerako beharrezkoa den formazio espezifiko eskainiko da.
- Langile euskaldunei formakuntzak euskaraz eskainiko zaizkie. Euskara ikasteko, sentiberatze-saioak antolatuko dira eta kanpainak egingen dira herriko etxearen barnean eta zerbitzu bakoitzean.

4. Herriko Etxeak 1.1.5. atalean zehazten denaren arabera osatuko du plangintza eta irizpide horiez gain, hauek ere zehaztuko ditu:

- Langileen euskalduntze-prozesua epe zehatzetan kokatuko da eta trebakuntza teknikoak eskaintzeko beharrak aztertu eta zehaztuko dira helduen euskalduntzeaz arduratzen den entitatearekin.
- Langilearen euskalduntze-formakuntza estrategikotzat joko da zerbitzuaren baitan, eta formakuntza hori balioan ezarriko da zerbitzuburuaren aldetik.
- Lehentasunez, herritarrekin oro har eta bereziki hezkuntza prozesuetan edo adinekoen zaintzan dauden langileen euskalduntzea bilatuko da.

2. BESTE JOKABIDE ESPARRUAK

2.1. HEZKUNTZA

2.1.1. HEZKUNTZA FORMALA: HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

HEBP: 50, 51, 53, 64, 70, 54, 55, 56, 59 eta 60. neurriak

1. Herriko etxearen ardurapean diren ikas zentro edo haur hezkuntzako harrera guneetan, 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatzen dira, eta horiez gain, honakoak hartuko ditu kontuan:

- Herriko etxeak euskara garatzeko beharrezkoak diren dispositiboak martxan ezarriko ditu bere ardurapeko haur hezkuntzako harrera guneetan; LEHA (Lehen Haurtzaroaren Euskarazko Harrera) dispositiboaren bidez adibidez.
- Herriko etxeak, ikastetxeetan egiten dituen kirol interbentzioetan euskaraz dakiten irakasleak kontratatuko ditu euskarazko jarduera ziurtatzeko ikastetxe euskaldunetan.

2. Herriko etxeak murgiltze ereduaren aldeko sustapen-lana egiteko erabakia hartuko du; eta horretarako baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

- Izen-emate kanpainetan euskarazko irakaskuntzaren aldeko sustapen-lana eginen da.
 - Murgiltze ereduaren beharraz eta onurez informazioa zabalduko da.
 - Herriko etxeko gizarte-zerbitzuetan, komunikazio-kanpainak eta euskarriak sortuko dira, euskara ikastearen onurak balioan emanez.
- Herri ekimeneko murgiltze eredu ikastetxei ibilmolderako dirulaguntza emanen zaie herriko haurrak eskolatzeko. Herrian ikastolarik ez den kasuetan dirulaguntza bat emanen zaie ondoko herrietako ikastolei herriko haurren eskolatzeko.
- Herriak eraikin publikoak eskuragarri ezarriko dizkio herri ekimeneko murgiltze eredu ikastetxeei eta hauen sorrera eta garapena lagunduko ditu.
- Herriko etxeak etorri berrientzat martxan jartzen dituen harrera-protokoloetan murgiltze-ereduan izena emateko lanketa eginen du: euskarari buruzko informazio orokorra eta formakuntza-aukerak eskainiz, euskarak eskaintzen dituen aukerak eta onurak balioan jarriz, etab.
- Informazio osoa eskura egonen da herriko etxearen harrera-guneetan.
- Herriko etxeak euskara garatzeko beharrezkoak diren dispositiboak martxan ezartzea erraztuko du bere ardurapekoak ez diren harrera-guneetan, LEHA dispositibo adibidez.

2.1.2. HEZKUNTZA FORMALA: ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK (MUSIKA- ETA ARTE-ESKOLAK)

HEBP: 78, 79, 80 eta 81. neurriak

1. Herriko etxearen ardurapean diren zentroetan, 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatuko dira, eta horiez gain, honakoak hartuko dira kontuan:

- Herriko etxearen ardurapean dauden eskolaz kanpoko jardueri buruzko araudian hizkuntza-irizpidea txertatuko da.
- Zentroek hizkuntza-plangintza izanen dute eta haren segimendua egingen da.
- Ikastaro guztiak euskaraz eskaintzeko plangintza diseinatuko da izaera orokorra duten ikastaroak euskaraz egotea lehenetsiz, bai eta ikasleen eskaerak sortutakoak ere.
- Euskarazko taldeak sortzeko gutxieneko ikasle-kopurua ez da frantseserako baino altuagoa izanen.
- Euskarazko eskaintza promozionatzeko komunikazio-kanpainak egingen dira.

2. Herriko etxearen ardurapean ez diren zentroetan, euskarazko eskaintza sustatzeko erabakia hartuko da eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko dira:

- Jarduerak eskaintzen dituzten elkarte eta enpresek zuzeneko edo zeharkako laguntza jasotzeko euskarazko eskaintza areagotzeko eskatuko zaie.
- Enpresa eta elkarteek laguntzak eskuratzeko hizkuntzaren kudeaketa haien jardueran integratua izan beharko dute, euskara-planaren biartez edo euskararen ziurtagiriren baten bidez.
- Euskaraz jarduten duten zentroi dirulaguntza espezifikoak eskainiko zaie.
- 1.1.5. atalean zehaztutakoaren arabera, dirulaguntzek hizkuntza-irizpideak izango dituzte.

2.1.3. HEZKUNTZA INFORMALA: AISIALDI-ZENTROAK, KIROL-TALDE ETA -FEDERAZIOAK

HEBP: 82, 83 eta 84. neurriak

1. Herriko Etxearen ardurapean diren aisialdi zentroetan, 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatuko dira eta, horiez gain, honakoak hartuko dira kontuan

- Herriko etxearen ardurapean diren aisialdi zentroetako araudian hizkuntza-irizpidea ezarriko da.
- Zentroek eta taldeek hizkuntza-plangintza izango dute eta haren segimendua egingen da.
- Euskarazko taldeak sortzeko gutxieneko ikasle-kopurua ez da frantseserako baino altuagoa izanen.
- Euskarazko eskaintza sustatzeko komunikazio-kanpainak egingen dira.

2. Herriko etxearen jabeagoa ez diren aisialdi zentroetan eta kirol federazioetan, euskarazko eskaintza sustatzeko erabakia hartuko da eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko dira.

- Jarduerak eskaintzen dituzten elkarte eta enpresek zuzeneko edo zeharkako laguntza jasotzeko euskarazko eskaintza areagotzea eskatuko zaie.
- Zentro, talde zein federazioek laguntzak eskuratzeko hizkuntzaren kudeaketa euren jardueran integratua izan beharko dute euskara-planaren bitartez edo euskararen ziurtagiriren baten bidez.
- Euskaraz jarduten duten zentroi dirulaguntza espezifikoa eskainiko zaie.
- 1.1.5 atalean zehaztutakoaren arabera, dirulaguntzak hizkuntza-irizpideak izango dituzte

2.1.4. HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA

HEBP: 91, 93 eta 95. neurriak

1. Herriko Etxeak helduen euskalduntzea sustatzeko erabakia hartuko du eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea doakoa izan dadin bilatuko da, herriko etxeak beharrezko baliabide osagarriak esleituz edo lankidetzaren bitartez lortuz.
- Euskara ikasteko aukeraz eta onuz informazioa zabalduko da.
- Herriko gurasoei begira sentiberatze-kanpainak egiten dira euskara ikas dezaten.
- Berriazko kanpainak egiten dira euskaldunen alfabetatzeari begira.
- Kanpainak egingo dira helduek euskalduntzeko izena eman dezaten.
- Herriko etxeak ikasleei praktika-gunean segurtatzeko euskarazko erabilera-espazioak sustatuko ditu elkarrekin baliabideak emanez (teknikoak, dirulaguntzak, lokalak...).
- Kanpotik herrira etorri berrientzat, harrera-protokoloetan, helduen euskalduntze zentroetan izena ematea sustatuko da.

2.2. EREMU SOZIOEKONOMIKOA

2.2.1. OSASUNAREN ETA SEGURTASUNAREN BABESA, PRODUKTU ETA ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO PUBLIKOA, EKONOMIAKO FUNTSEZKO SEKTORE ETA ZERBITZUAK

HEBP: 103, 104, 105, 107, 108 eta 111. neurriak

1. Herriko etxeak eremu sozioekonomikoan urratsak egiteko diru bidezkoak ez diren beste moduak baliatuko ditu:

- Herriko etxea bezero edo kontsumitzailea denean, idatziz zein ahoz, euskarazko zerbitzua eta arreta eskatuko du, bai eta euskarazko euskarriak ere.
- Kontratazio-mota guztietan hizkuntzaren kudeaketari buruzko aipamenak eta irizpideak txertatuko dira.
- Herriko paisaiari lotutako publizitate- eta informazio-euskarriek hizkuntza-irizpideak izanen dituzte, RLP (Tokiko Publizitate Erregelamendua) baten baitan adibidez.

2. Herriko etxeak eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko sustapen politika garatzeko erabakia hartuko du eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

EUSKARA PLANAK

- Merkatariekin zuzenean edo merkatarien elkarleen bidez, sentsibilizazio eta sustapen lana egingo da, eta elkarlanean ekintza-plan bat ezartzeko ahaleginak egingen dira.

EUSKARAZKO ZERBITZUA

- Funtsezko zerbitzua (telekomunikazioak, garraioa, osasuna, energia-hornitzaileak, gizarte-prestazioak, finantza-erakundeak, aseguru-etxeak, posta-zerbitzua) eskaintzen duten enpresa pribatuekin sentiberatze- eta sustapen-lan berezia egingen da, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
- Euskarazko zerbitzua eskaintzen duten establezimenduen identifikazioa egiten lagunduko da.
- Tokiko ekoizpenak edo merkatuko produktuak direnean, produktuen etiketak euskaratzeko aholkularitza eta itzulpen zerbitzua eskainiko da.
- Osasunari eta segurtasunari buruzko euskarri fisikoa euskaraz jartzeko erraztasunak emanen dira, adibidez, euskarriaren aldaketa udalak finantzatzuz edo itzulpen-zerbitzua eskainiz.
- Errotulazioa eta merkataritza-informazioa, bereziki kanpo-iragarkietako euskarriak, euskaratzeko erraztasunak emanen dira
- Osasunari eta segurtasunari buruzko mezu-bankua osatuko da eta eskuragarri egonen da.
- Euskaratzeko tresnak eskuragarri egonen dira: gidak, liburuxkak...
- Informazioa euskaraz egiteko dokumentu-bankua eskuragarri egonen da.
- Itzulpen-zerbitzuak eskainiko dira.

SENTIBERATZEA

- Establezimenduetan lehen hitza euskaraz egiteko kanpainak egingen dira.
- Euskaraz kontsumitzearen aldeko kanpainak bultzatuko dira.
- Euskararen erabilera sustatzeko ekimenak abiatuko dira.

2.3. HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

2.3.1. HEDABIDEAK

HEBP: 140, 144, 145, 146, 148, 149, 150 eta 152. neurriak

1. Herriko etxeak, bere jabego diren hedabideetan, 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatuko ditu, eta, horiez gain, honako hauek hartuko ditu kontuan:

- Herriko etxearen jabego diren hedabideetan euskararen presentzia bermatzeko planifikazioa egingen da, eta presentzia ezagutza tasaren (euskaldunak+ia euskaldunak) gaineratik (+%10) egonen da, beti ere gutxieneko %50 bermatua.
- Herriko etxearen jabego diren hedabideetan, euskaraz egiten dutenei hizkuntza nagusian egitera ez zaie behartuko eta, azpigituluak edo itzulpena erabiliko dira.

2. Herriko etxeak informazioa euskaraz jasotzeko eskubidearen aldeko sustapen-lana egingo du eta baliabideak zein aurrekontua zehaztuko ditu:

- Herriko etxeak, bakoitzak bere eskumeneren arabera, euskarazko hedabideen sustapen-plana egingen du prestigioa emateko eta ikusarazteko.
- Dirulaguntza espezifiko emanen zaie euskarazko hedabideei eta tokiko hedabide euskaldunei.
- Publizitate instituzionala emateko garaian euskararen erabilera balioztatuko da.

2.3.2. INGURUNE DIGITALA

HEBP: 159, 160, 161, 162, 164, 165 eta 166. neurriak

1. Herriko etxeak, bere jabego diren euskarri informatiko edo digitaletan, 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren irizpideak aplikatuko ditu, eta, horiez gain, honako hauek hartuko ditu kontuan:

- Hornitzaileen softwarea euskaraz egonen da (inprimagailuak, fotokopiagailuak, ordenagailuak...).
- Hur eta gazteentzat lehentasunezko produktu digitalak identifikatu, eta euskaraz egon daitezen ibilbide-orria definituko da.
- Herriko etxearen web-orrietan txertatuak diren eduki guzietan aplikatuko zaizkie hizkuntza-irizpideak.

2. Herriko etxeak euskarazko ingurune digitalaren aldeko sustapen lana egiteko erabakia hartuko du eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

- Proiektu digitalen dirulaguntza deialdietan eta bestelako kolaborazio ekonomikoetan euskararen erabilera puntuazio-irizpide gisa jasoko da.
- Herri mailako eragileei ingurune digitala euskalduntzeko laguntzak emanen zaizkie.

2.4. ONOMASTIKA

2.4. ONOMASTIKA

HEBP: 120, 126, 128, 130 eta 131. neurriak

1. Herriko etxeak Euskaltzaindiak zehaztutako toponimoa hartuko du erreferentziazat

- Herriko etxeak Euskaltzaindiak erabakitako toponimia ezarriko du idatzizko euskarri guztietan, bide-seinaleak, inprimakiak, webguneak, kartelak, etab...
- Herriko etxeak hitzarmenak sinatuko ditu herriko euskarazko toponimia ikertzeko
- Herriko etxeak herriko toponimia bildu eta herritarren eskura jarriko du.
- Herriko etxeak tokiko enpresei eta bestelako erakundeei herriko toponimoen berri emanen die

2. Herriko etxeak herriko izendegia euskaraz bermatuko du

- Herriko etxeak kudeatzen dituen garraiobideetan Euskaltzaindiak erabakitako toponimia erabiliko du
- Herriko etxeak garraiorako egiten dituen kontratu eta esleipen guztietan Euskaltzaindiak erabakitako toponimia erabiltzea bultzatuko du.

3. Herriko etxeak euskarazko antroponimoak errespetatu eta sustatuko ditu

- Herriko etxeak herritarren euskarazko antroponimoak ez ditu aldatuko.
- Herriko etxeak sentiberatze-kanpainak antolatuko ditu herritarrek antroponimoak euskal grafia edo idazkerara ekar dezaten.

2.5. KULTURA

2.5. KULTURA

HEBP: 168, 169, 170, 171, 172, 173, 175, 176, 177, 178, 179, 180, 181 eta 183. neurriak

1. Herriko etxeak, dagokion kasuan, 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan zehazten diren neurriak aplikatuko ditu eremu honetan eta, horiez gain, honako hauek hartuko ditu kontuan:

- Euskal kultura herritarren artean sustatzeko, herriko etxeko sail ezberdinetan plan-gintzak eta aurrekontuak onartuko dira kultura zehar-lerroko politika izan dadin.
- Herriko kultur programazioan euskal kultura ardatz, kultura unibertsala landuko da herriko kultur elkarte, eragile eta hezitzaileekin.
- Kultur programazioan, euskararen presentzia, herriko euskararen ezagutza tasa baino %10 goragokoa izanen da.
- Kuota-sistema aplikatuko da herri azpiegitura publikoetan euskararen presentzia segurtatzeko.
- Euskarazko programazioa ematen duten entitateentzat dirulaguntza espezifikoak izanen dira.
- Herriko etxeak kudeatzen dituen edota diruz lagundutako zinema-aretoetan euskarazko gutxienekoak finkatuko dira

2. Herriko etxeak euskaraz sortutako kultura eta kultura unibertsala euskaraz sustatzeko erabakia hartuko du eta baliabideak eta aurrekontua zehaztuko ditu:

- Euskaraz sortzen duten eragile eta norbanakoak promozionatzeko, mota guztietako laguntzak eskainiko dira, dirulaguntzak, beka, sariak, trebakuntza guneak...
- Herri mailako euskarazko kultur eragileekin hitzarmenak garatuko dira epe ertain / luzera.
- Sorkuntzak zein ekimenak gizarteratzeko edo espazio publikoan hedatzeko estrategiak definituko dira herri eragileekin elkarlanean.
- Herri azpiegiturak eskura jarriko dira euskarazko sormena eta herri-kulturako ekimenak bertan gara daitezen.
- Herriko etxeak kudeatzen dituen edo diruz lagundutako hedabideetan euskaraz sortutako kulturaren berri emateko saioak edo tarteak egonen dira.
- Herriko etxeak antolatzen dituen erakusketa guzietan euskararen presentzia ziurtatuko da.
- Zuzenean edo zeharka dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek antolatzen dituzten erakusketetan euskararen presentzia ziurtatuko da.
- Herrian antolatzen diren erakusketa guztietan euskararen presentzia ziurtatzeko baliabideak jarriko dira.
- Beste hizkuntza batzuetan sortutako kultur produktuak euskaraz daudelarik, eskuragarri jarriko dira (literatura unibertsala, zinema...).



IV. GLOSARIOA

Euskara-plana	Entitate batean, izan administrazio, enpresa edo elkarte euskararen erabilera garatzeko osatzen den dokumentuari deitzen zaio euskara-plana. Dokumentu horretan erabilera garatzeko bete beharreko helburuak, abian jarri beharreko ekintzak, baliabideak eta epeak zehazten dira, bai eta ebaluaziorako irizpideak ere.
Euskara-unitatea	Euskara lantoki bateko sail, departamentu, edo beste tamaina bateko lan-talde baterako lan-harremanetan erabili beharreko ohiko hizkuntza gisa ezartzen denean, lan-talde hori euskara-unitate gisa izendatua izan dela esango dugu. Horretarako, beraz, lan-talde hori osatzen duten langile guztiek euren lan-jarduna edo lan-harremanak euskaraz garatzeko beharrezko hizkuntza gaitasuna izan beharko dute (egiaztatua ala ez) eta idatzizko nahiz ahozko barne zein kanpo lan-harreman guztiak euskaraz garatuko dituzte, betiere, herritarraren hizkuntza-hautua bermatuz.
Zirkuitua	Zirkuitu deitzen zaio, herritar edo langile batek abiatutako prozedura batek, azken erantzuna edo emaitza jaso artean, administrazioko sailen edota lanpostuen artean urratsez urrats egiten duen ibilbide osoari.
Euskarazko zirkuitua	Herritarrari edo langileari zerbitzua euskaraz eman ahal izateko eta beraz, berak abiatutako prozeduraren azken erantzuna euskaraz jaso ahal izateko, euskarazko zirkuitua eratzeak suposatzen du prozedura horietako urrats edo izapide guztiak euskaraz egin ahal izateko gai diren langileen arteko zirkuitua aurreikustea, bai eta hala behar denean prozedurak zirkuitu horretatik bideratuko direla bermatzea ere. Horretarako, proposatzen da, prozedura horietan parte hartuko duten sail guztietan gutxienez langile elebidun bat egotea, zirkuitua osatu ahal izateko.
Kuota-sistema	Kuota-sistema, produkzio kopuru osoaren arabera ezartzen den gutxienerako bati deitzen zaio. Euskararen kasuan hedabideei aplikatzen zaie kuota-sistema normalean. Hau da, hedabide batek sortzen duen eduki guztitik zein den euskaraz sortu beharreko gutxieneroa zehazten da kuota baten bidez. Normalean ehunekotan zehazten da



Protocole pour la Garantie des Droits Linguistiques : Déclinaison au niveau Communal



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



EUSKAL KONFEDERAZIOA



I. PREFACE	5
II. PRINCIPES GENERAUX, ORGANISATION ET UTILITE	7
1. Principes généraux qui régissent le document	8
2. Déclinaison du protocole au niveau communal : guide pour l'élaboration d'une politique linguistique intégrale comme sectorielle au sein d'un processus	8
3. Organisation des contenus	9
4. Quelques conseils pour un bon usage du document	10
4.1. Mode d'emploi	10
4.2. Participation	10
4.3. Diagnostic de départ, définition des objectifs et les outils	10
4.4. Mesures prioritaires et critères	10
III. OBJECTIFS, REPERES ET MESURES	13
1. La commune	14
1.1. Services et démarches en euskara	14
1.2. La communication en euskara	15
1.3. Travailler en euskara	17
2. Autres domaines d'intervention	19
2.1. L'éducation	19
2.2. Domaine socioéconomique	23
2.3. Médias et nouvelles technologies	24
2.4. L'onomastique	25
2.5. La culture	26
IV. GLOSSAIRE	27



|
PRÉFACE

A l'issue d'un processus de plus d'un an et demi fut présenté le 16 décembre 2016 au Palais Kursaal de Donostia le Protocole pour la Garantie des Droits Linguistiques, reprenant les propositions d'une communauté de plus de cent acteurs européens représentant trente langues. Le Protocole est le fruit du travail le plus colossal jamais réalisé en Europe par les acteurs de la société civile en faveur des langues minorisées. Nous nous sommes mis d'accord sur une série de mesures pour garantir nos droits. Nous avons donc produit un document qui comptabilise 185 mesures à prendre en compte pour la garantie des droits linguistiques ; il s'agit du Protocole pour la Garantie des Droits Linguistiques (PGDL).

Concernant la définition des droits, le Protocole s'est basé sur la Déclaration Universelle des Droits Linguistiques de Barcelone de 1996. Ainsi, nous pouvons affirmer que le fait de se baser sur les 185 mesures du Protocole devrait avoir un effet, notamment sur la garantie des droits que la Déclaration Universelle des Droits Linguistiques reconnaît à chaque communauté linguistique.

Une fois le Protocole entre les mains, il nous est apparu nécessaire de faire un pas supplémentaire. Alors que le Protocole a été l'occasion de recueillir les propositions des différentes communautés linguistiques, il fallait néanmoins développer une application propre à chaque langue. Il nous a donc semblé nécessaire de créer un outil facilitant la lecture du Protocole adaptée à la situation de l'euskara. Dès lors, la Déclinaison du Protocole pour le Pays Basque précisait chacune des mesures. On y détaillait, en fonction des besoins de l'euskara, une liste de caractéristiques et de critères permettant de réaliser chacune de ces mesures.

